

Urriña  
Octubre  
2017

# BIM

## Antsoain Ansoáin



**Argitaratzalea:** Antsoaingo udala. **Erredakzio Kontseilua:** Maria Olaiz, Arantxa Gambre, Marco Alvarez, Patxi Leuza, M<sup>a</sup> Aranzazu Arias. **Erredatzailea:** Imagen Gráfica. **Ale kopurua:** 4500 ale. **Doako banaketa.** **Edita:** Ayuntamiento de Ansoáin. **Consejo de Redacción:** Maria Olaiz, Arantxa Gambre, Marco Alvarez, Patxi Leuza, M<sup>a</sup> Aranzazu Arias. **Realiza:** Imagen Gráfica. **Tirada:** 4500 ejemplares. **Difusión gratuita.**

(Hurrengo aldizkaria: 2017ko abendua – Próximo BIM: diciembre 2017)

## **UDALAK PASABIDE BAT ERAIKIKO DU JURRAMENDI ZEHARKALEA ETA LERIN KALEAREN ARTEAN**

Lerin kaleko 15. zenbakiren aldamenean zegoen bizilagun elkarteararen lokala izandakoa erostea onartu du Antsoaingo Udaleko Gobernu Batzordeak. Lerin kalea Jurramendi zeharkalearekin elkartuko duen pasabide bat eraikitzeko erabiliko du lokal hori Udalak. Horrela, Antsoaingo hirigunera sartzeko bide hobea eman nahi zaie oinezkoei, beharrezkoa baita pertsonen mugikortasuna eta joan-etorriak erraztea horrelako ezaugarriak dituen hiribarne batean. Horrez gain, Jurramendi kalean dauden Gizartetxearekin eta osasun etxearekin nabarmen hobetuko da lotura; kontuan izan behar da nagusiki adineko jendeak erabiltzen dituela bi zerbitzu horiek. Pasabidea eraikitzeko helburua bete zezakeen eraikin hori erosi aurretik, Udalak eskaera egin zien inguru berean dauden beste bi lokaletako jaberí, saltzeko eskaintza egin zezaten, eta bizilagunen elkartearena izan zen eskaintza abantailatsuena. Euro bateko prezio sinbolikoa ordaindu da erosketa hori egiteko, eta Udalak bere gain hartuko ditu lokal horrek Iruñerriko Mankomunitatearekin, bizilagunen komunitatearekin eta Udalarekin zituen zorrak. 5.169,00 eurokoa zen zorraren kopurua erosketa onartu zen unean.



## **EL AYUNTAMIENTO VA A CONSTRUIR UN PASADIZO QUE UNIRÁ LA CALLE LERÍN CON LA TRAVESÍA MONTEJURRA**

La Junta de Gobierno del Ayuntamiento de Ansoáin ha aprobado la adquisición del local que ocupaba la antigua Asociación de vecinas y vecinos junto al número 15 de la calle Lerín para la construcción de un pasadizo que va a unir esta calle con la travesía Montejurra. De esta forma, se pretende mejorar la accesibilidad peatonal del centro urbano de Ansoáin, facilitando la movilidad y el tránsito de personas en una zona con unas características urbanas muy marcadas. Con ello mejorará notablemente también la conexión con el centro Cívico

situado en la travesía Montejurra y con el centro de salud, teniendo en cuenta sobre todo, las personas de avanzada edad que utilizan ambos servicios. Para la compra del inmueble que pudiera servir al objetivo de construir el pasadizo, el ayuntamiento solicitó a los propietarios de dos locales de la zona la presentación de una oferta de venta, resultando la más ventajosa la que corresponde a la Asociación vecinal. De esa manera el coste de compra asciende a un precio simbólico de un euro y el ayuntamiento se hace cargo de la deuda que el local mantiene con la mancomunidad de la comarca, la comunidad de vecinos/as y el propio consistorio, cuyo importe a la hora de la aprobación de la compra era de 5.169,00 euros.

## **HARROBIETA ETA LERIN KALEKO SEINALE HORIZONTALEN MARGOKETA**



Duela gutxi, aurreikusitako berrikuntza planaren barne, bai Lerin kaleko zein Harrobieta kaleko seinale horizontalak margotu dira iparraldeko ingurabidea eta Zelaia parkearen aldameneko biribilgunearen artean. Oinezkoen pasabideetan pertsonek behar dituzten bide segurtasunerako hainbat elementuri eman zaie margoa: zebra bideei, marra etengabeei zein etenei, eta errei bereizgailuei.

## **REPINTADO DE SEÑALES HORIZONTALES EN CALLE CANTERAS Y LERÍN**

Recientemente, dentro del plan de renovación previsto, se ha procedido al repintado y mejora de la señalización horizontal tanto de la calle Lerín como de la calle Canteras entre la ronda norte y la rotonda junto al parque Zelaia. La actuación afecta a pasos de cebra, líneas continuas y discontinuas, y separadores de carriles destinados a la seguridad vial de personas en los pasos peatonales.

## UDAN EGINDAKO INBERTSIOAK BUKATUTA DAUDE

Uda horretan, aurrez iragarrita zeuden hainbat obra egin dira, hala nola, haur eskolakoak, Ezkaba ikastetxe publikoak behar zituenak, kirodegikoak eta futbol zelaiaren aurre aldeko babes sarea aldatzeko lanei zegozkienak. Udaberrian, osasun etxe zaharra gune sozial komunitario gisa erabilia izateko egokitzapen obrak bukatu ziren, eta lan horiei udako hilabeteetako obra hauek gauzatzeko egin diren azkeneko inbertsio berrien kopuruak gehitura, guztira, 265.000 euroa gerturatzenten den gastua egin da. Azpimarratzeko da obrak egiteko bideratu diren esleipen prozesuetan, ahal izan den kasuetan, Antsoaingo enpresei parte hartzeko gonbita egin zaiela, eta, obra horien arteko gutxienez hiru udalerriko egoitza duten enpresek egin ahal izan dituztela.

### KIROLDEGIAK TEILATU BERRIA

Cerramientos Ansoáin enpresak egin du, eta, osotara, 35.193,52 euroko kostua izan du. Inbertsio horren bidez, estaldura osatzen duten polikarbonatozko xafla guztiak berritu dira. Neurri horrekin, konpetizioko pistan, itoginen ondorioz sortzen ziren arazoak konpondu nahi izan dira.

### HAUR ESKOLAKO LEIHOAK BERRITZEA

Eskolan egin den inbertsioa eraikinaren leiho guztiak berritzeko izan da, eta, horrekin, eraginkortasun termikoa handitzearekin batera, segurtasuna hobetu da, izan ere, aurreko kristalek ez zuten betetzen arloari dagokion segurtasun araudia. Egoitza Antsoainen duen Saldaña enpresak egin du obra, eta 32.522,38 euroko bukaera kostua izan du.

### FUTBOL ZELAIAREN AURREKO SAREA BERRITZEA

Zelaia inguratzen duen sarea berritzeko lanen lehenengo fasea izan da, eta 7.115,86 euroko kostua izan du. Sarea berritzearrekin batera, lehen ez zegoen hesi berri bat jarri da, joko zelaiaren itxitura hobetzeko helburuarekin. Ranking enpresa izan da berrizte lan hauen egilea.

## FINALIZADAS LAS INVERSIONES REALIZADAS DURANTE EL VERANO

Durante el verano se han venido desarrollando las obras anunciadas en la escuela infantil, colegio público Ezkaba, polideportivo y campo de fútbol en lo que respecta al cambio de la red protectora frontal. De esta manera, a la finalización en primavera de las obras de adecuación del centro de salud antiguo para su uso como espacio social comunitario, se le suman ahora este nuevo montante de inversiones que, en conjunto, han supuesto un coste cercano a los 265.000 euros. Es de reseñar que a los diferentes procesos de adjudicación de las obras en los que ha sido posible, han sido invitadas empresas de Ansoáin, dándose el hecho de que, finalmente, al menos tres de ellas se han realizado por empresas ubicadas en nuestro municipio.



### NUEVA CUBIERTA EN EL POLIDEPORTIVO

Realizado por la empresa Cerramientos Ansoáin, ha supuesto un coste total de 35.193,52 euros y se han renovado todas las láminas de policarbonato de la cubierta. De esta manera, se pretende acabar con el problema de goteras que afectaba de manera importante a la pista de competición.



### RENOVACIÓN DE VENTANAS EN LA ESCUELA INFANTIL

La inversión realizada ha consistido en la renovación de todas las ventanas del local, mejorando con ello tanto la eficiencia térmica de la escuela como la seguridad, puesto que los cristales anteriores no respondían a la normativa actual en esa materia. La obra ha sido realizada por la empresa Saldaña, ubicada en Ansoáin, con un coste definitivo de 32.522,38 euros.




### RENOVACIÓN DE LA RED FRONTAL DEL CAMPO DE FÚTBOL

Es la primera fase de la renovación de la red protectora que rodea el campo y su coste ha sido de 7.115,86 euros. Junto a la renovación de la red, se ha habilitado la colocación de una nueva valla que antes no existía, con la finalidad de mejorar la envoltura del terreno de juego. La empresa Ranking ha sido quien ha realizado la reforma.

## **EZKABA IKASTETXE PUBLIKOAREN SARBIDEAK EGOKITZEKO OBRAK**

Sarbide berri hauen diseinuak arloko araudiaik dioenari egokitzeko helburua badauka ere, aldi berean, haurrak sarbide horietan jolasean ibiltzeko aukera ematen du. Horrez gain, bertan eserit ahal izateko egokitu dira arrapalak, banku moduan. Lan hauei dagokien diru kopurua 19.556,75 eurokoa izan da, eta Construcciones Apezetxea enpresak egin du obra.



## **EZKABA IKASTETXE PUBLIKOAREN KANPO ALDEKO ALDAGELEN BERRIKUNTZA**

Eskolako patioan dauden aldagelak berritzeko egin dira obra hauek, itxita baitzeuden legionelosiari dagokion araudia ez zutelako betetzen. Urbide Iturgintza enpresa antsoaindarra izan da araudi horretara egokitzeko egin behar ziren obren esleipen hartzalea. Obra horien exekuzioari esker, aldagelak berriz irekiko dira, eta programatzen diren hainbat kirol jardueretan erabili ahal izanen dira. Berrikuntza lan hauen kostua 63.685,30 eurokoa izan da osotara.

## **ADECUACIÓN DE ACCESOS AL COLEGIO PÚBLICO EZKABA**

Obra consistente en la adecuación de los accesos al colegio a la normativa en materia de accesibilidad, su diseño ha sido concebido además para que las niñas y niños puedan interactuar como zona de juego. También se han habilitado las nuevas rampas como banco en el que poder sentarse. El montante económico ha ascendido a 19.556,75 euros y la empresa ejecutora ha sido Construcciones Apezetxea.

## **REFORMA DE VESTUARIOS EXTERIORES DEL COLEGIO PÚBLICO EZKABA**

La obra realizada ha consistido en la renovación de los vestuarios ubicados en el patio escolar, que permanecían cerrados por no cumplir con la normativa existente sobre legionelosis. La empresa adjudicataria de los trabajos de adecuación a esa normativa ha sido la antsoaindarra Urbide Iturgintza y su ejecución va a permitir la reapertura de unos vestuarios que van a poder ser utilizados de nuevo para las diferentes actividades deportivas programadas. El coste de la reforma asciende a un total de 63.685,30 euros.

## **BRONTZEZKO DOMINA ESPAINIAKO KOPAN CLUB RÍTMICA ANSOÁINEKO NESKENDAKO**

Club Rítmica Ansoáin taldearen senior ekipoko neskek brontzezko domina lortu zuten joan den uztailean, Logroñon egin zen Espainiako kopan. Hori dela eta, Udalak kirol lorpen hori aitortu nahi izan zien ekipoko kideei zein entrenatzaileei, festetan harrera eginez; eta, suziria bota aurretik, lore sorta bana jaso zuten eta festetako zapiak jarri zizkieten plazan. Udaletxearen aurrean izan zen hori, eta, harrera ekitaldi horretan, Udalak eskerrak eman zizkien, lorpenaz gaindi, Antsoainen izenaren eramaile direlako ekipoa lehiatzera joaten den toki guztietañ. Badira urte batzuk klubak parte-hartze maila onarekin lantzen duela kirol minoritario hau gure herrian, eta ordezkarri onak izateagatik ere eskertu zituzten. Zorionak neskak! Zorionak Club Rítmica Ansoáin!

## **MEDALLA DE BRONCE EN LA COPA DE ESPAÑA PARA LA CHICAS DEL CLUB RÍTMICA ANSOAIN**

Las chicas del equipo senior del Club Rítmica Ansoáin consiguieron el pasado mes de julio la medalla de bronce en la Copa de España celebrada en Logroño. Por ello, el ayuntamiento quiso reconocer su logro deportivo con una recepción antes del chupinazo de fiestas en la que tanto a ellas como a sus entrenadoras se les entregó un ramo de flores y se les colocó el pañuelo de fiestas. En la recepción, celebrada en el zaguán de la casa consistorial, el Ayuntamiento quiso agradecer, además del éxito deportivo, el hecho de que son portadoras del nombre de Ansoáin allá donde compiten y dignas representantes de un deporte minoritario que en nuestro pueblo se viene trabajando por parte del club desde hace años con un importante nivel de participación. Enhorabuena chicas! Enhorabuena Club Rítmica Ansoáin!



## ANTSOAINGO GAZTELEKUA, HARROBI

Uda horetan makrame, azazkala, hockey, halterofilia... tайлerrak izan ditugu. Jarduera horietara gerturatu diren lagunez gain, playback-a prestatzera etorri diren gazte koadrilak izan ditugu gurekin. Jarduera horrek gazteria nola mugiarazten duen ikustea oso gustuko dugu!

Dakizuen moduan, "Harrobi Live" egin ohi dugu. Irailaren 8an, flamenco kontzertua izan genuen Miguel de Runaren eta bere gitarrista Marcos do Santosen eskutik; eta urriaren 6an, "Dinner & Music" izanen dugu Harrobin, 00:00ak arte. Afaria ekar ezazu eta guk jarriko dugu musika.

Pasa den irailaren 1etik hasita, Harrobik betiko ordutegian irekitzen du, baina aldaketa batzuekin: batetik, aretoak jendeari uzteko hiru hilabeterako izaten ziren erreserbak lau hilekoak izatera pasako dira, irailetik abendura, hain zuen ere; eta bestetik, programazioari begira, kurtso berriak eskaintzen ditugula jakinarazten dizuegu, hala nola, hip-hop, yoga+mindfulness, panderoa, G.A.P.a eta zumba. Gerturatu zaitezte plaza libreak zein kurtsotan dauden jakiteko.



## CASA DE LA JUVENTUD, HARROBI

Durante este verano hemos tenido diferentes talleres como macramé, uñas, deportivos como hockey, halterofilia...

Además de quienes se han animado a participar en estas actividades, también hemos tenido varios grupos de jóvenes que han venido a ensayar para preparar el playback. ¡Nos encanta ver cómo moviliza esta actividad a la juventud!

Como sabréis, a menudo hacemos "Harrobi Live". El 8 de septiembre tuvimos un concierto flamenco a cargo de Miguel de Runa y su guitarrista Marcos do Santos. Y para el 6 de octubre "Dinner & Music" en Harrobi. Tú tráete la cena, nosotras ponemos la música y nos quedamos hasta las 00:00h.

Aprovechamos para recordar que el 1 de septiembre volvimos al horario habitual con algunas novedades. Por un lado, la reserva de cesiones de salas trimestral será cuatrimestral, de septiembre a diciembre y con respecto a la programación, tenemos cursos nuevos: hip-hop, yoga+mindfulness, pandero, zumba y G.A.P. Venid a consultar en cuáles quedan plazas libres

## IRAUNKORTASUNAREN BIDEAN AURRERA

Duela gutxi pasa ditugu Arrikurrock jaialdia eta gure herriko festak. Horregatik, Tokiko Agenda 21en, edozein ospakizunetan gero eta ohikoagoa den elementu bati buruz hitz egin nahi dugu: berrerabiltseko edalontzia.

Bistan da behin erabili eta botatzeko diren edalontziak baztertzeko helburua duela; hau da, lortu nahi dena da toki publikoetan gure aisialdian ere sortzen ditugun hondakinez gu arduratzea. Horrela, kaleak garbiago mantentzeaz gain, milaka ontzi egin behar izatea saihesten dugu, eta, ondorioz, horiek egiteko behar diren baliabideak aurrezten dira. Bestela esanda, planetan aztarna arinagoa utziko dute gure festek.

Gauzak ongi egin ahal izateko, ordea, beharrezkoa da erosten duzun edalontzia berriz erabiltzea. Horretarako, etxetik ekar dezakezu edo erosi duzun tokira bueltan eraman. Zuk euroa berreskuratuko duzu eta edalontziak bizi berri bat. Ez bota, inolaz ere; zentzuzkoa berrerabiltstea da.

Azaroaren 25a: Antsoaingo Udalak datorren azaroaren 25eko nazioarteko ospakizuna aprobetxatuko du, antsoaindarren aurrean emakumeen kontrako edozein motatako indarkeriaren aurka hartu duen konpromisoa berresteko; eta egun horren bueltan eginen diren jardueretan parte hartzera animatzen ditu herritar guztiak. Informazio gehiago jasotzeko eta proposamenak egiteko, mail bat idazten ahal duzue Berdintasun Zerbitzura: igualdad@ansoain.es; edo 948 38 40 48 telefonora hots egin.



## AVANZAMOS HACIA LA SOSTENIBILIDAD

Recientemente disfrutamos del festival Arrikurrock y de las fiestas de nuestro pueblo. Por ello, desde la Agenda 21 de Ansoáin queremos hablar de un elemento cada vez más presente allí donde celebramos algo: el vaso reutilizable.

Su objetivo obviamente es prevenir la utilización de vasos de "usar y tirar". Es decir, hacernos responsables también de los residuos que generamos en el espacio público durante nuestro ocio. Con ello, no sólo conseguimos una calle más limpia, sino que evitamos la fabricación de miles de envases con el consiguiente ahorro de recursos. En definitiva, unas fiestas con una menor huella en el planeta.

Pero para que esto sea eficaz, es necesario que el vaso que compras vuelva a ser reutilizado; bien porque lo traigas siempre de casa o bien porque lo devuelvas. Tú recuperas el euro y el vaso una nueva vida. En ningún caso lo tires, porque reutilizar es de sentido común.

25 de noviembre: el Ayuntamiento de Ansoáin va a aprovechar la conmemoración internacional del próximo 25 de noviembre para reafirmar ante la vecindad antsoaindarra su firme compromiso frente a todo tipo de violencias contra las mujeres. Para ello, ánima a toda su ciudadanía a participar en las distintas actividades que se programarán en torno a ese día. Para recibir más información y hacer propuestas se puede escribir un mail al Servicio de Igualdad, igualdad@ansoain.es, o llamar al 948 38 40 48.

AL21

## ABIAN DA ANTSOAINGO AUDITORITZA ENERGETIKOA

Eficen empresas eginen du Antsoaingo auditoretza energetikoa, bera izan baita esleipen-hartzailea. Auditoretza hori beharrezkoa da, eta herriko argiteria hobetzeko emanen den lehen pausoia izanen da, modernizaziorako eta eraginkortasuna handitzeko aurreikusi den inbertsio planaren barne. Lanak 7.200 euroko kostua du, eta azaroaren 7a baino lehen bukatuta egonen da. Udalak diru-laguntza lor dezake auditoretza egiteagatik, eta data hori da eskaera egin ahal izateko azkeneko eguna.



## EN MARCHA LA AUDITORÍA ENERGÉTICA DE ANSOÁIN

La empresa Eficen ha sido la adjudicataria de la elaboración de la auditoría energética que el ayuntamiento pretende realizar como paso previo y necesario para la mejora del alumbrado público de Ansoáin dentro del plan de inversiones previsto para la modernización y mejora de la eficiencia del mismo. El trabajo tiene un coste total de 7.200 euros y estará finalizado antes del 7 de noviembre, fecha límite para el acceso a las subvenciones de ayuda a su elaboración a las que el consistorio pretende optar.

## UDALTZAINGOA

Udaltzaingoak zakurren jabeei zuzendutako informazio kanpaina egin zuen irailean, uhalaren erabilera sustatzeko. Kanpaina hau udal ordenantza betearaztearen aurretiko pauso da, jabeek euren animaliak loturik eraman ditzaten, eta, horrekin batera, iraizkinak biltzeko.

Kanpainaren arrakasta argi dago: kanpaina aurrera zihuan heinean, gero eta zakur gutxiago ikusten ziren kaleetan aske.

Udaltzaingoak gogorarazten du udal ordenantzak dioena ez betetzeak 300 euroko isuna ekar dezakeela.



## POLICIA MUNICIPAL

Policía Municipal, ha realizado durante el mes de septiembre una campaña informativa dirigida a personas propietarias de perros, con la finalidad de concienciar sobre el uso de la correa. Esta campaña ha sido un paso previo para ejercer un mayor control sobre el cumplimiento de la Ordenanza Municipal en cuanto a llevar los animales atados con correa y, por ende, la recogida de los excrementos.

El éxito de la campaña ha sido evidente, ya que se ha comprobado cómo, a medida que avanzaba la campaña, se iba reduciendo el número de personas que llevaban sus animales sueltos.

Desde Policía Municipal se recuerda que el incumplimiento de lo dispuesto en la Ordenanza Municipal, puede acarrear sanciones económicas de hasta 300€.

## MINTZAKIDE

Ikasturtea hasi berri dugun honetan, Mintzakide aurkeztu nahi dizuegu oraingoan. Euskaraz hitz egin nahi dutenei mintzatzeko aukerak ematen dizkien programa da Mintzakide. Duela urte batzuk sortu zen, eta, hemen Antsoainen zein Iruñerri osoan, jende asko elkartzen du taldean astero. Mintzakide programa arduratzen da talde horiek eratzeaz: 4-6 lagunekoak izaten dira, eta talde bakoitzean euskaraz erraz moldatzen den pertsona bat elkartzen da euskara maila hobetu nahi dutenekin.

Paseoan, kafetegian, kiroldegian... biltzen dira, irakaslerik gabe eta modu informalean.

Hitz egin ahal izateko gutxieneko malla izatea da parte hartzeko baldintza bakarra (B1etik aurrera). Izen-ematea doakoa da eta irekia dago urriaren 22ra arte, [www.irunnerrikomintzakide.org](http://www.irunnerrikomintzakide.org) helbidean edo Udal Euskara Zerbitzuan.

Bestalde, euskara dakitenak ere animatu nahi ditugu izena ematera. Zenbat eta gehiago izan, orduan eta talde gehiago osatuko ditugu.



## MINTZAKIDE

Comienza el curso y en esta ocasión queremos hablaros de Mintzakide. Es un programa que ofrece oportunidades para practicar euskera. Se creó hace varios años, y reúne semanalmente a muchas personas en toda la cuenca y aquí en Ansoáin. Lo hacen en grupos que previamente ha formado Mintzakide: cuentan con 4-6 participantes y en cada grupo hay una persona que habla euskera con fluidez junto con otras que quieren mejorar su nivel. Quedan

para tomar un café, pasear, hacer deporte... Se trata de encuentros informales sin profesorado. El único requisito para participar es que se tenga algo de conocimiento para poder comunicarse (a partir de B1), y la inscripción es gratuita. El plazo está abierto hasta el 22 de octubre en [www.irunnerrikomintzakide.org](http://www.irunnerrikomintzakide.org) o en el Servicio de Euskera municipal.

Por otro lado, animamos a las personas que hablan euskera con fluidez a que se apunten. Cuantas más seamos, más grupos formaremos.



## HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA

Ohiko Osoko Bilkurak hilabete bakotzeko azken asteazkenean egiten dira, 18:00etan, Udaleko osoko bilkuren aretoan.

## INFORMACIÓN A LA CIUDADANÍA

Las sesiones del Pleno Ordinario se celebran los últimos miércoles de mes, a las 18:00 horas, en el salón de plenos del Ayuntamiento.

## ANTSOAINGO UDAL MUSIKA ESKOLA

Aurten ere, Antsoaingo musika eskolako bandak irailaren 23an Antsoaingo Herri Zaharrera egindako erromerian parte hartu zuen.

Eskolako ikasleek motoreak berotu zituzten ikasturtea hasi bezain pronto, eta kalejira polit eta alaia prestatu zuten ibilaldia girotzeko. Bukatzeko, merezitako txistor jate goxoa izan zuten. Aupa zuek!



## UDAKO IGERILEKUETAKO AISIALDIKO PROGRAMA

Bigarren urtez jarraian, udako aisialdi programa garatu da igerileku irekietan. Abonudunen eskaeretatik abiatu zen Udalak egin duen apustu hau, Udalak bultzatu zuen prozesu parte-hartzaile baten bidez, hainbat ekarpen jaso zirenean, kirol instalazioak eta udako igerilekuak hobetu ahal izateko. Beste behin ere, egitarauak hainbat motatako jarduerak eskaini ditu: aquagym, gymkhana, uretako jolasak, xake tailerrak, festetako dantza tailerrak, Capoeira Caxeré eta kirol txapelketa batzuk. Jarduera horiek adin guztietako jendearentako izan dira, baina, nagusiki, haurrendako.

Halaber, abuztuaren 5ean, igerilekuaren eguna ospatu zen. Ospakizun horretan, puzgarriak eta txalupak izan ziren, pilotxa txapelketa, jaurtiketa libreen txapelketa, saskibaloi jokoak, eta baita paella herrikoia, museko zein ping-pongeko txapelketak eta dantza ere.



## ESCUELA DE MÚSICA MUNICIPAL DE ANSOÁIN

Un año más, la banda de la Escuela de Música de Ansoáin acompañó a vecinos y vecinas en la Romería al Pueblo Viejo que se celebró el 23 de septiembre.

El alumnado de la escuela calentó los motores nada más empezar el curso y preparó una bonita y alegre kalejira para amenizar el paseo. Y después como recompensa, una merecida txistorrada.

## PROGRAMACIÓN DE OCIO EN LAS PISCINAS DE VERANO

Por segundo año consecutivo se ha desarrollado una programación de ocio en las piscinas de verano. Esta apuesta municipal comenzó a realizarse a partir de una demanda de abonadas y abonados, realizada a través de un proceso participativo impulsado por el consistorio, para recoger aportaciones de posibles mejoras en las instalaciones deportivas y piscinas de verano.

Una vez más, la programación ha recogido la oferta de distintas actividades: Aquagym, gymkhana, juegos en el agua, talleres de ajedrez, talleres de baile festivo, Capoeira Caxeré y varios campeonatos deportivos. Estas actividades han estado dirigidas a personas de todas las edades pero principalmente a niñas/os.

Así mismo, el 5 de agosto, se ha celebrado el día de la piscina. En este evento se pudo disfrutar de hinchables y barcas, torneo de Pelota y Campeonato de tiros libres y Juegos baloncesto, así como de la Paellada Popular, campeonato de mus y ping-pong y bailable.

## GIZARTE GAIAK

Urriaren 4tik 22ra irekiko da Antsoaingo Udalak antolatzen dituen haurren ikastaroak, kirol jarduerak eta kultur jarduerak egiteko diru-laguntza eskatzeko epea.

17 urte arteko seme-alabak dituzten familietara bideratuak daude laguntzak, eta, adinaren baldintza betetzearekin batera, matrikula egina eduki behar da haurren kirol eskolan, haur eta gazteen igeriketa ikastaroetan (ikastaro osoa), gazteen kirol jardueretan edota euskal dantzetan.

Lagunza honek helburu du Antsoaingo adingabeei kirola eta kultura eskura jartzea, euren egoera ekonomikoa dena delakoa izanda ere. Familia unitatearen baliabide ekonomikoen arabera emanen dira laguntzak, eta jardueraren % 60 jasoko da gehienez, betiere pertsonako 75 euroko mugarekin.

Eskaerarekin batera, dokumentu hauek ekarri behar dira:

- Aurreko ekitaldiko errenta aitorpena (2016).
- Eskatzailearen nortasun agiriaren kopia (NAN, AIZ, pasaporte).

Eskaerak aurkezteko epea: urriaren 4tik 22ra, 08:30-14:30era.

Tokia: Antsoaingo Udaleko Erregistro Orokorra.

Oinarriak Udalean bertan ikus daitezke, edo Udalaren webgunean: [www.antsoain.eus](http://www.antsoain.eus)



## ASUNTOS SOCIALES

Del 4 al 22 de octubre se abre el plazo para solicitar ayudas para cursos y actividades deportivas y culturales infantiles organizadas por el Ayuntamiento en 2017.

Las ayudas van dirigidas a familias con menores que hayan formalizado la inscripción en escuelas infantiles deportivas, cursos infantiles y juveniles de natación (curso completo), actividades deportivas juveniles hasta 17 años y danzas vascas.

La finalidad es facilitar el acceso al deporte y la cultura a los menores de Ansoáin independientemente de cuál sea su situación económica. Las ayudas se concederán en función de los recursos económicos de la unidad familiar, con un tope del 60% del coste de la actividad y un máximo de 75€ por persona.

Documentación que se debe aportar junto con la solicitud:

- Declaración de la renta del ejercicio anterior (2016)
- Fotocopia del documento identificativo de la persona solicitante (DNI, NIE, pasaporte).

Plazo de presentación de solicitudes: 4 al 22 de octubre de 8:30 a 14:30 horas.

Lugar: Registro General del Ayuntamiento de Ansoáin

Se pueden consultar las bases en el propio Ayuntamiento o en la web municipal [www.ansoain.es](http://www.ansoain.es)

## ZERBITZUAK UDALEKOTZEKO PROZESUAREN GARAPENA

Maiatzean hasi eta abuztuan bukatu ziren Sedena enpresak ematen zituen zerbitzuak udaleko bihurtu ahal izateko beharrezkoak ziren izapideak. Irailaren 16rako udalekotu ziren zerbitzu publiko horiek, eta, aurrerantzean, Udalak emanen ditu zuzenean.

Udalekotze honek nagusiki zerbitzu hauei eragin die: kirol instalazioetan ematen direnei, eszena gunekoei eta udaleko lokalen garbiketa lanetakoei.

Xede horretarako jarri zen abian Sociedad Pública Idakirolak, S.L., eta hori izan da zerbitzu horiek udaleko bihurtu ahal izateko erabili den tresna, eta baita bertako kudeatzailearen hautaketa prozesua garatzeko aukera eman duena ere. Jesús Arraiza Martínez izan da kudeatzaile postua eskuratu duen hautagaia. Bestalde, plantilla organikoan sartu dira garbiketa eta sarreren kontrol lanei dagozkien lanpostuak, eta horiek izan dira prozesu hau sendotzeko ardatz nagusiak.



## DESARROLLO MUNICIPALIZACIÓN DE SERVICIOS

A lo largo de los meses de mayo a agosto se han realizado los diferentes trámites que han posibilitados que a partir del día 16 de septiembre los servicios públicos que venía prestando la empresa SEDENA, se presten desde el Ayuntamiento de manera directa.

Esta municipalización ha afectado principalmente a servicios que se prestan en las instalaciones deportivas y espacio escénico y a la limpieza de locales del Ayuntamiento.

La puesta en marcha de la Sociedad Pública Idakirolak, S.L., como ente instrumental del proceso de municipalización, el proceso de selección de su gerente, que ha finalizado con la selección en la persona de Jesús Arraiza Martínez y la incorporación en plantilla orgánica de los puestos de trabajo de limpieza y control de accesos de las instalaciones deportivas, han sido los principales ejes de consolidación de este proceso.



## KIROL BONUA

Urritik aurrera eskainiko da helduei bideratuko zaien jardueren zerrenda, eta, aurten, Sociedad Pública Idakirolak, S.L. izanen da antolatzalea.

Orain arte eskaini izan denarekin jarraituz, funtzionamendu sistemak aukera emanen du kirol jarduera zerrenda luze baten artekoak aukeratzeko: TRX, mantentze gimnasia, pilates, spinning, spinning virtual, boxmaster, zumba, total pump, hipopresiboak, yoga, insanity, gap eta kropp 3D.



## ABONO DEPORTE

Desde este mes de octubre se ofertará la parrilla completa de actividades para adultos/as, organizada este año desde la Sociedad Pública Idakirolak, S.L..

El sistema de funcionamiento, continuando con lo que se venía ofreciendo, permitirá la posibilidad de elegir entre una amplia lista de actividades: TRX, gimnasia de mantenimiento, pilates, spinning, spinning virtual, boxmaster, zumba, total pump, hipopresivos, yoga, insanity, gap y kropp 3D.

## 2017KO AURREKONTU PARTE-HARTZAILEEN GARAPENA

Aurreko Udalaren Informazio Aldizkarian iragarri bezala, bost proposamen jaso ziren aurtengo aurrekontu parte-hartzaileetan. Maiatzean eta ekainean egin ziren aurkeztutako proposamen horiei zegozkien azterketa teknikoak eta ekonomikoak, aukera guztien bideragarritasuna baloratzeko. Harrobi Gaztelekuaren ondoan dagoen pistan saskibaloiko saskiak jartzea ekarriko du proposamenetako batek, eta, besteak, berriz, gutxi gorabehera zortzi autokarabananrendako gaua pasatzeko tokia eta zerbitzugunea, Harrobieta kalearen eta José María Jiménez Jurío kaleen arteko aparkalekuuan.

Ikusirik proiektu horien kostua aurrekontu parte-hartzaileetara bideratutako 20.000 euroko kopurua baino txikiagoa dela, Parte-hartze Batzordeak onartzea erabaki zuen.

Lanen garapenerako, empresa batzuek aurrekontua aurkeztuko dute, eta egokienari eta abantaila handienak dituenari esleipena eman ostein, bi proiektuen exekuzio lanak hasiko dira.

Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu proposamenak egin ditutzenei, eta Antsoaingo herritar guztiak animatu nahi ditugu, datozen aurrekontu parte-hartzaileetan proposamenak aurkezteko.



## DESARROLLO DE LOS PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS 2017

Como ya anunciamos en el pasado Boletín Informativo Municipal, 5 han sido las propuestas recibidas para los presupuestos participativos de este año. Durante los meses de mayo y junio se ha realizado el estudio técnico y económico de las diferentes propuestas, valorándose la viabilidad de dos de las propuestas presentadas. Una de ellas supondrá la instalación de canastas de baloncesto en la pista ubicada junto al centro juvenil Harrobi y la otra, el desarrollo de un área de servicios y pernocta para alrededor de 8 autocaravanas, en el parking situado entre las calle Canteras y José María Jiménez Jurío.

Dado que el coste de estos dos proyectos es inferior a los 20.000 euros asignados para presupuestos participativos, la Comisión de Participación aprobó el llevar a cabo estas dos propuestas.

Para el desarrollo de las mismas, se presupuestará por diferentes empresas su realización, que una vez adjudicada a las ofertas más adecuadas y ventajosas, se comenzará la ejecución de los 2 proyectos.

Desde estas líneas, agradecer la participación de las personas que han realizado sus propuestas y animar a toda la ciudadanía de Ansoáin a participar en los próximos presupuestos participativos.

## EZKABA IKASTETXE PUBLIKOAN

Gure ikasleek uda ederra pasa dute gurasoekin, aitonamonekin eta lagunekin, herriko plazan jolasean, igerilekuian, hondartzan... Horren ondoren, ikasturtearen hasieran, irribarretsu sartu dira eskolan, lagunekin elkarteko irrikaz baitzeuden; eta prest, eskolak eskainiko dizkien esperientzia eta ezagutza berriekin aberasteko.



Ikasle asko etorri dira. Horietako batzuk lehen urtea dute eskolan eta egokitzen ari dira orain, eta, beste zenbait, beriz, gurekin batera handitzen ari dira, bereziki azkeneko mailan dauden ikasleak. Zeinen azkar pasatzen den denbora eta zenbat ikasten ari garen elkarrekin! Jasotako heziketari eta egiten ari diren lanari esker, hemendik hilabete batzuetara harro ikusiko dugu bide berri bati ekiteko prest eta prestatuta daudela.

Bestalde, ikasturte hasiera honetan, aipamen berezia egin nahi dugu jubilatu berri diren lau irakasleentzat, izan ere, lan handia eta aberasgarria egin dute gurean. Eskerrik asko eskolari eman diozuen guztiagatik!



## COLEGIO PÚBLICO EZKABA

Nuestro alumnado ha pasado un magnífico verano con sus padres, madres, abuelos, abuelas y amistades, jugando en la plaza del pueblo,

en la piscina, la playa... Y ha llegado contento al inicio del curso, deseando ver a los y las compañeras, y listo para enriquecerse con las experiencias y los conocimientos que les ofrecerá su escuela.

Como todos los años, recibimos por primera vez a niños y niñas que se están adaptando, y, por otro lado, al alumnado que crece junto con todo el personal de la escuela. Y llegan también los y las chicas de último curso. ¡Es increíble la rapidez con la que pasa el tiempo y todo lo que estamos aprendiendo! Gracias a la educación que han recibido y a su esfuerzo personal, en unos meses veremos con orgullo que ese alumnado estará listo y preparado para una nueva andadura.

Y en este inicio de curso, queremos hacer una mención muy especial para las cuatro profesoras que se han jubilado y agradecerles todo lo que durante estos años han aportado a la escuela. Eskerrik asko!



## DANTZAN IKASI NAHI AL DUZU? 18 URTE BAINO GEHIAGO AL DUZU? ¿TIENES MÁS DE 18 AÑOS? ¿QUIERES APRENDER A BAILAR?

¿Has observado que cada vez hay más gente, y no solo dantzaris, bailando músicas tradicionales? Ahora tienes una ocasión perfecta para aprender o practicar danzas de nuestro patrimonio cultural. ¡Áñimate y ven a bailar con nosotr@s!

Ohartu zara gero eta jende gehiago euskal dantzak dantzatzen dabilela? Ez duzu zertan dantzaria izan behar, orain duzu aukera dantzak ikasi eta praktikatzeko. Anima zaitez eta etorri gurekin dantza egitera!

Grupo de Danzas EGUZKI EKER Dantza Taldea: nagusia56@gmail.com • Tf. 658 509 946

# Actividades Culturales • Kultur Jarduerak

VIERNES 6 OSTIRALA



ENTRADA LIBRE  
SARRERA DOAN

## PROYECCIÓN · FILM-EMANALDIA

Teatro Ansoáin · 20:00 h. (50 minutos)  
Antsoaingo Antzokia · 20:00etan (50 minuto)

Todos los públicos - Jende guztiarentzat

### ESCALADAS EN EL KARAKORUM

10º aniversario del Ezkaba Mendi Taldea.

Escaladas muy diferentes en el remoto Karakorum. Apertura de una nueva ruta en la mítica Torre sin Nombre. 15 días en pared para abrir la primera ruta de la inexplorada hasta entonces cara norte. Nueva ruta la Changui Tower y segunda ascensión a esta mole granítica del Karakorum. Escalada en estilo cápsula. Ascensión al K2(8611m) por el Espolón de los Abruzos. Un intento de apertura en el G2 por la vertiente china. Ascenso al G4 por su espolón N.O, nueva vía al Broad Peak Central y nueva vía en la Torre sur del Paiju Peak.

Director: MIKEL ZABALZA

### ESCALADAS EN EL KARAKORUM

Ezkaba Mendi Taldearen 10. urtemuga

Oso eskalada ezberdinak urruneko Karakorum harten. Ibilbide berria ireki da Izenik gabeko Dorre mitikoan. 15 egunez paretan, ordura arte esploratu gabe zegoen iparraldeko aurpegian lehen ibilbidea irekitzeko. Changui Tower ibilbide berria, eta bigarren igoera Karakorum granitoko mendi-puskara. Eskalada kapsula estiloan. Igoera K2-ra(8611m) Abruzoen Espoloitik. G2 mendian irekitzeko saikera, Txinako aldetik. Igoera G4-ra ipar-mendebaldeko espoloitik, ibilbide berria Broad Peak Centralera eta bide berria Paiju Peakeko Hego Dorrera.

Zuzendaria: MIKEL ZABALZA

SÁBADO 14 LARUNBATA



### ANTSOAINEN KANTUZ

Antsoainen Kantuz desea ampliar el grupo. Por eso motivo invita a toda persona que quiera participar con el grupo. Los ensayos son los jueves a las 19:30 en el Centro Cívico de Ansoáin.

## SALIDA MENSUAL · HILEAN BEHINGO IRTEERA

Plaza Lapurbide · 12:00 h.  
Lapurbide plaza · 12:00etan

Familiar - Familiarentzat

### ANTSOAINEN KANTUZ

Antsoainen Kantuz jende bila dabil. Hori dela eta, taldea zabalik dago hartan parte hartu nahi duen jende guztiarentzat. Entseguak ostegunetan egiten dira, 19:30ean, Antsoaingo Gizarreta Etxean.

VIERNES 20 OSTIRALA

TDIFERENCIA (NAVARRA - NAFARROA)

## TEATRO - ANTZERKIA

Teatro Ansoáin · 21:00 h. (80 minutos)  
Antsoaingo Antzokia · 21:00etan (80 minuto)


Juvenil - Adulto · Gazte eta Helduentzat

### “SALIR DE CUENTAS A LOS 50”

Una comedia muy loca, en la que seguro nos sentiremos identificados con más de un personaje en algún momento. De los 25 años en adelante es difícil que no hayas pasado por las preguntas de; ¿Y tú para cuándo...?

¿Para cuándo un novio o una novia, para cuándo vivir juntos o casaros, para cuándo el niño o la niña, para cuándo el segundo, para cuándo la vasectomía... para cuándo...? ¡Para cuando me dé la gana!

Nuestros protagonistas han decidido hacerlo cuando les ha dado la gana pero sus vecinos, amigos, familia, conocidos y desconocidos, tienen mucho que decir. Demasiado. ¿Sabes de qué hablo, verdad? Una comedia para primerizos, para padres con familia numerosa, Dinkins, solteros, casados... Una comedia para todo el mundo.



VENTA ANTICIPADA / ALDEZ AURREKO SALMENTA  
8,00 €  
VENTA EN TAQUILLA / SALMENTA LEIHATILAN  
10,00 €

### “SALIR DE CUENTAS A LOS 50”

Komedia ero-ero eta dibertigarria da, eta ikusleei begiko eginen zaie pertsonai bat baino gehiago, uneren batean. 25 urtetik gora, nori ez ote diote galdezu honelakorik: Zu... noizko? Noizko mutil-laguna edo neskala-laguna? Noizko elkarrekin bizi edo ezkondu? Noizko ezkontza? Noizko haurra, noizko bigarrena, noizko basektomia..., noizko...? Gogoak ematen didanerako!

Gogoak ematen dienerako egitea erabaki dute gure protagonistek, baina auzokideek, familaiak ezagunek eta ezezagunek zer esan handia dute. Handiegia. Badakizu zertaz ari naizen, ezta?

Hasi berriendako komedia da, familia ugariko gurasoentzat, Dinkinsentzat, ezkongabeentzat, ezkonduentzat.... Jende guztiarentzako komedia bat.

#### SUBVENCIONA/DIRUEMAILEA:



DEL 16 AL 26 DE OCTUBRE  
URRIAREN 16 TIK 26RA

NAVARRA-BULGARIA



**ENTRADA LIBRE  
SARRERA DOAN**

**FUNDACION RODE**

GARANTIZANDO EL DERECHO HUMANO AL AGUA EN POBLACIONES RURALES DE LA REGIÓN SUDOESTE DE COSTA DE MARFIL

El agua es fundamental para la vida y el desarrollo. El poblado de Roc (sudoeste Costa de Marfil) no contaba con un adecuado acceso al agua, abasteciéndose de fuentes superficiales que afectaban su salud. Con el objetivo de mejorar la calidad de vida de sus habitantes, en 2016 se instaló un sistema de abastecimiento de agua que aprovecha la energía solar, y la población recibió formación para hacer buen uso del agua.

Espacio Cultural/Kulturgunea. Ctra. Ansoáin 4Bis  
“Kulturgunea”. Antsoain errepideetik 4Bis

Todos los públicos - Jende guztiarentzat

**FUNDACION RODE**

URA ESKURATZEKO GIZA ESKUBIDEA  
BERMATU NAHIAN BOLI KOSTAKO HEGO-MENDEBALDEKO NEKAZARITZA HERRI TXIKIETAN

Ura funtsezko da bizitzarako eta garapenerako. Roc izeneko herrixkan (Boli Kostako hego-mendebaldea) ez zegoen ura behar bezala eskuratzearik, ura azaleko iturrietatik hartzen baitzuten, eta hori kaltegarria zen jendearentzat. Bizilagunen bizi-kalitatea hobetze aldera, 2016an, urez horritzeko sistema bat ezarri zen, eguzkiennergia baliatuta, eta jendeari ura ongi nola erabili erakutsi zitzaien.

De 17'10 a 19'20 los lunes, martes y jueves  
De 17'00 a 21'20 los miércoles

17:10 - 19:20 astelehen, astearte eta ostegunetan  
17:00 - 21:20 asteazkenetan

SÁBADO **21** LARUNBATA

NAVARRA-BULGARIA



**PRECIO / PREZIOA 5,00 €**

**FESTIVAL BENÉFICO ASOCIACION ROSA DE BULGARIA EN NAVARRA**

Festival solidario para recaudar fondos a favor del niño de 7 años Bogidar Krustev. Ofreceremos una mirada colorida sobre la personalidad búlgara presentando video sobre Bulgaria; y a continuación bailaremos y cantaremos por una sonrisa - a favor de la vida!

Teatro Ansoáin · 19:00 h. (120 minutos)  
Antsoaingo Antzokia · 19:00etan (120 minutu)

Todos los públicos - Jende guztiarentzat

**ROSA DE BULGARIA ELKARTEA  
NAFARROA**

Elkartasuneko jaialdi bat da, Bogidar Krustev 7 urteko haurrenteko dirua biltzeko. Bulgariako nortasunari buruzko begirada koloretsu bat eskainiko dugu, Bulgariaren inguruko video bat aurkeztuta; eta ondotik, irribarre baten alde eta biziaren alde abestu eta eginen dugu dantza!

MIÉRCOLES **25** ASTEAZKENA

**CUENTA CUENTOS (en euskera) - IPUIN-KONTALARIA (euskaraz)**

Biblioteca  
Liburutegia

**“PONTXA ETA PIRATAK” JAIONE URTASUN**

**ENTRADA LIBRE  
SARRERA DOAN**

17:30 De 3 a 5 años  
18:15 De 6 a 12 años

17.30ean, 3 eta 5 urte bitartekoentzat  
18.15ean, 6 eta 12 urte bitartekoentzat

VIERNES **27** OSTIRALA

AMBIGU (NAVARRA - NAFARROA)



**VENTA ANTICIPADA / ALDEZ  
AURREKO SALMENTA 8,00 €  
VENTA EN TAQUILLA /  
SALMENTA LEIHATILAN  
10,00 €**

**“GRATIX”**

¿Alguna vez ha sentido que alguien le engaña? ¿Le han timado? Le han ofrecido una ganga y al final no ha sido tal... entonces usted está en el sitio adecuado. Hoy va a poder sacar toda su rabia, recordar esos momentos y reírse de ello, libremente, junto a todos los que nos ha pasado lo mismo... una catarsis colectiva sin precedentes.

Timos, engaños, ofertas, nuevas ofertas y precios especiales en un disparatado espectáculo de humor, donde la risa le puede salir a un muy buen precio, que digo a precio de ganga porque aquí todo es GRATIX.

Teatro Ansoáin · 21:00 h. (70 minutos)  
Antsoaingo Antzokia · 21:00etan (70 minuto)


Juvenil - Adulto · Gazte eta Helduentzat

**“GRATIX”**

Inoiz sentitu al duzu engainatu ditzela? Iruzur egin al dize? Pagotxa bat eskaini eta, azkenean, ez da halakorik izan...? Orduan, toki egokian zaudet. Gaur, zure amorruguztia ateratzeko aukera izanen duzu, une horiez oroitzeako eta horretaz barre egiteko parada, askatasun osoz, gauza berbera gertatu zaigun guztiokin batera... inoizko katarsi kolektibork handiena.

Iruzurrak, ziriak, engainuak, eskaintza berriak eta prezio bereziak umorezko ikusizun eroan, eta irria oso prezio onean aterako zaiuzu, hau da, sekulako pagotxa izan daiteke zuretzat, hementxe dena MUSUTRUK baita.

SÁBADO 28 LARUNBATA



PRECIO / PREZIOA  
3,00 €

### LEYUAD, UN VIAJE AL POZO DE LOS VERSOS

Limam Boisha, poeta saharauí que vive en Madrid, confiesa que se ha quedado "seco del Sáhara", y viaja hasta el Sáhara Occidental, para recuperar la inspiración para sus versos. Un viaje duro y largo, que con un plan como aquel, buscando la inspiración, el pozo de la poesía, no sería un viaje pesado por el desierto cruel, sería un viaje poético y emotivo.

En Leyuad les espera en su jaima el poeta Sidi Brahim, que les mostrará los milagros de un lugar único, y les adentrará en los mitos y secretos de los genios del desierto, aquellos "a los que no se puede nombrar". Director: GONZALO MOURE TRENOR & BRAHIM CHAGAF & INÉS G. APARICIO

### PROYECCION - FILM-EMANALDIA

Teatro Ansoáin · 19:30 h. (74 minutos)  
Antsoaingo Antzokia · 19:30ean (74 minuto)

Todos los públicos - Jende guztiaarentzat

### LEYUAD, UN VIAJE AL POZO DE LOS VERSOS

Limam Boisha poeta sahararra da. Madrilen bizi da. Aitorru du "Saharaz idorra" gelditu dela, eta Mendebaldeko Saharaino joan da bere bertsoetarako inspirazio-iturria berreskuratzeko. Bidaia gogor eta luzea, baina hura bezalako planarekin, inspirazio bila, poesiaren putzua, ez litzateke izanen basamortu latzean barnako bidaia astuna, bidaia poetikoa eta hunkigarría baizik. Sidi Brahim poeta izanen dute zain Leuyuaden; bere jaiman hartuko ditu, eta leku paregabearen sekretuak erakutsiko dizkie, basamortuko mito eta sekretuen atea irekita, "izendatu ez daitezkeen sekretuen atea", alegría. Zuzendaria: GONZALO MOURE TRENOR & BRAHIM CHAGAF & INÉS G. APARICIO

DOMINGO 29 IGANDEA



VENTA ANTICIPADA / ALDEZ AURREKO  
SALMENTA 4,50 €  
VENTA EN TAQUILLA / SALMENTA LEIHATILAN  
6,00 €

### TEATRO INFANTIL - HAURRENTZAKO ANTZERKIA

Teatro Ansoáin · 18:00 h. (55 minutos)  
Antsoaingo Antzokia · 18:00etan (55 minuto)

A partir de 3 años - 3 urtetik gorakoentzat

### "ANA MONTAÑA Y EL REINO INVISIBLE"

ILUNA PRODUCCIONES EN COLABORACIÓN CON GERNA (GRUPO ENFERMEDADES RARAS DE NAVARRA)

Ana Montaña, discute con su padre. Un niño nuevo ha llegado al colegio. Se llama Samuel y tiene mucho morro porque todos están pendientes de él. Además hay días en los que dice que no se encuentra bien y todos se esfuerzan en ayudarle. Le llevan la mochila, le sujetan la puerta, ihastre le quieren hacer una rampa para que salga del cole deslizándose "haciendo surf"! Ana sospecha que Samu oculta algo "raro" y se dedica a investigar. Un cuento que trata de dar color y calor a lo invisible.

### "ANA MONTAÑA Y EL REINO INVISIBLE"

ILUNA PRODUCCIONES GERNArekin ELKARLANEAN (NAFARROAKO GAIXOTASUN ARRAREN TALDEA)

Ana Montaña aitarekin ari da eztabaidean. Mutiko berri bat iritsi da eskolara. Samuel du izena eta azal lodia du benetan, denak berari begira dauzkalako. Gainera, egun batzuetan esaten du ez dagoela ongi, eta denak saiatzen dira berari laguntzen.

Motxila eramatzen diote, atea eusten diote, eta aldapa bat ere egin nahi diote, eskolatik "surf eginez" ateria dadin! Anari sussmagarría iruditzen zaio, iruditzen zaio Samuk zerbaite ezkutatzen duela, eta ikerketan hasiko da. Horra ikusezinari kolorea eta beroa ematen saiatzen den ipuin bat.

## VENTA DE ENTRADAS SARREREN SALMENTA

**TAQUILLA DEL TEATRO.** Desde una hora y media antes del comienzo de cada espectáculo  
**ANTZOKIKO LEIHATILAN.** Ikuskizunaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago hasita.

**TELEFONO 012** (Desde fuera de Navarra 948 012 012). Las entradas se recogen en la taquilla del teatro desde una hora y media antes del comienzo de cada espectáculo  
**012 TELEFONOAN** (Nafarroatik kanpo 948 012 012). Sarrerak hartzen dira ikuskizun bakoitzaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago hasita.

**INTERNET** • [www.teatroansoain.es](http://www.teatroansoain.es) VENTA DE ENTRADAS. Con el justificante de compra por internet pasa directamente a la sala

**INTERNET** • [www.teatroansoain.es](http://www.teatroansoain.es) SARREREN SALMENTA. Internet bidez egindako erosketaren egiaztagiria ekartzen baduzu, zuzenean aretora pasa zaitez.